# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

## 3877

*176/2011 DEKRETUA, uztailaren 26koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateari atxikitako Munduko Ekonomia eta Garapenari buruzko Ikasketen Unibertsitate Institutua (HEGOA) eraldatu eta, aurrerantzean, Hegoa Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari buruzko Ikasketen Unibertsitate Institutu Misto bihurtzeko dena.*

Hegoa-Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari buruzko Ikasketen Unibertsitate Institutua urriaren 19ko 356/1999 Dekretuaren bidez sortu zen, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Hegoa Elkarteak 1997ko maiatzean izenpetutako hitzarmenaren ondorioz. Horretarako, institutu atxikiaren figura sortu zen, dimentsio bikoitz hau emateko asmoz: soziala, batetik, eta, unibertsitarioa, bestetik, hitzarmenak bere baitan hartzen baitzituen irabazi asmorik gabeko erakunde pribatu bat eta Unibertsitatea bera.

Praktikan, ordea, institutu hori mistoa izan da, bertan bat egin baitute unibertsitateaz kanpoko erakunde pribatu batek (Hegoak) eta Euskal Herriko Unibertsitateak, beronek hitzarmen bidez sortu baitzuen institutu hori unibertsitatearen berezko egitekoak gauzatzeko, hala nola, berezko tituluak irakastea eta master ofizialak eskaintzea. Hegoa Elkarteak, bere aldetik, eutsi egin zion gizartean garapenerako lankidetza-ekintzak, -jarduerak eta -proiektuak egiteko gaitasunari. Hori dela-eta, Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluak 2011ko martxoaren 9an hartutako Erabakiaren bidez, Institutu Atxikia Institutu Misto bihurtzeko eskatzen da.

Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoak, apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoaren bitartez aldatutakoak, 8.2 artikuluan zehazten duenez, halako zentroak sortu, aldatu eta bertan behera uzteko erabakia autonomia-erkidegoek hartuko dute, euren ekimenez, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluaren adostasuna dutela, edo bestela, Unibertsitatearen ekimenez hartuko da, Gobernu Kontseiluak proposatuta; bi kasuetan, Gizarte Kontseiluaren aldeko txostena beharko da.

Ildo beretik, Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 62.2.c) artikuluak ezartzen duenaren arabera, unibertsitate-arloko eskumena duen sailak onartuko du ikerketako unibertsitate-institutuak sortu, aldatu eta bertan behera uztea, besteak beste.

Otsailaren 15eko 17/2011 Dekretuaren bidez, Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuak onartu ziren. Estatutuen 142.1.c) artikuluan, institutu mistoei buruzko alderdiak arautzen dira, eta hartan, institutu mistotzat hartzen dira beste unibertsitate edo erakunde publiko nahiz pribatu batekin lankidetzan hitzarmen bidez sortutakoak; hitzarmen horretan, betiere, lankidetzan arituko diren erakundeen mendetasun bikoitza eta institutuaren erregelamendua finkatu egingo dira.

Horren indarrez, Munduko Ekonomia eta Garapenari buruzko Ikasketen Unibertsitate Institutu Atxikia (HEGOA) eraldatzeko eta, aurrerantzean, Hegoa Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari buruzko Ikasketen Unibertsitate Institutu Misto bihurtzeko Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluak egindako proposamena ikusita, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko uztailaren 26an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Baimena ematen da Euskal Herriko Unibertsitateari atxikitako Munduko Ekonomia eta Garapenari buruzko Ikasketen Unibertsitate Institutua (HEGOA) eraldatzeko eta, aurrerantzean, Hegoa Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari buruzko Ikasketen Unibertsitate Institutu Misto bihurtzeko.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Institutu horren jarduerak garatzeko, bi erakundeek izenpetuko duten lankidetza-hitzarmenean ezarritakoa hartuko da aintzat eta, betiere, ikerketako unibertsitate institutuei buruzko Esparru Erregelamenduko xedapenak aplikatuko dira.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko uztailaren 26an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.